

GOBERNU BATZARRA

2008. 06. 09

Beh. Beh. Alkatea:

Jokin Azkue Arrastoa

Zinegotziak:

**Onintza Lasa Arteaga
Yurre Peñagarikano Zubeldia
Andoni Iturzaeta Arbillaga**

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Tolosako Udaletxean, bi mila zortziko ekainaren 9an, Gobernu batzarra bildu da, ohizko bilera egiteko, goizeko 08:00etan hasita. Mahai-burua behin behineko alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak aztertzeko.

1.- Aurreko akta onartzea.

2.- Euskal Fondoa.

3.- Osasun Pastoralta.- Dirulaguntzaren eskaera.

4.- Diru poltsa edukitzea.

5.- Prórroga del servicio de limpieza de edificios públicos.

6.- Gizarteratze programa.- Errefortzuko teknikariaren kontratazioa.

7.- Ereite Elkarteak: aurtengo egitasmoak eta diru laguntza.

8.- Kultur tailerretako ordaindu gabeko kuotak.

9.- 13. zenbakia duen faktura-zerrenda.

10.- Tolosaldeko mankomunitatea.

1.- Aurreko akta onartzea.

Behin behineko alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2008ko ekainaren 2an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Euskal Fondoa.

Tolosako Udalak beste herrialdeetan proiektu komunak finantzatzeko 5.652,85 euroko aportazioa aurreikusi zuen (2007. urteko aurrekontua + KPIa).

Ondorioz, Gobernu batzarrak, Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako diktamena ikusita, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.-Euskal Fondoak aurkezturiko proiektuetatik ondoren aipatzen diren bi hauetara hurrengo diru ekarpen hauek onartzea:

1.- NIKARAGUA. Ur beltzen saneamendua. III. Fasea. 2.000 €.

2.-EL SALVADOR. Udalerrri bidezkoak eta demokratikoak eraikiz. IV Fasea, 3.652,85 €.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Osasun eta Gizarte Departamentuari

3.- Osasun Pastoraliza.- Diru laguntzaren eskaera.

Andre Maria parrokiako "Osasun Pastoraliza" taldeak egin duen 2007. urteko diru laguntzaren eskaera ikusi ondoren, eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuetatik egindako proposamenarekin bat etorriz, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Eskaerari ezezkoa ematea, joan den urteko aurrekontuak itxita daudelako.

BIGARREN.- Aurtengo oinarriak onartzen diren bezain laster, erabakia jakinaraztea "Osasun Pastoraliza" taldeari.

HIRUGARREN.- Erabaki honen berri ematea Osasun eta Gizarte Zerbitzuko batzordeari eta Andre Maria parrokiako "Osasun Pastoraliza" taldeari.

4.- Diru poltsa edukitzea.

Ikusita pasadizoko pertsonak premiazko betebeharrak dituztenean, Gizarte Zerbitzuetako langileengana jotzen dutela eta horiek beren poltsikotik dirua aurreratzen dutela, eta hau gerta ez dadin eta pasadizoko pertsonak kalteturik izan ez daitezen, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKIDU

LEHENA.- 200 euroko kopurua ematea Gizarte Zerbitzuetako arduradunari eta eskatzea urtearen bukaeran Kontuhartzaitzan egin dezatela gastatutako diruaren azalpena. Baldin eta diru kopuru hori lehenago gastatzen badute eta gehiago behar izanez gero, dirua eskuratu baino lehen justifikatu egin beharko dute emandako kopurua zertan gastatu duten.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Osasun et Gizarte Zerbitzuetako arduradunari.

5.- Prórroga del servicio de limpieza de edificios públicos.

El contrato del servicio actual de limpieza de edificios finaliza el próximo día 30 de junio y por parte de este Ayuntamiento se ha propuesto a SGL, empresa adjudicataria del servicio, la ampliación del mismo hasta diciembre del 2008 con el fin de que el contrato de la nueva adjudicación entre en vigor el 1 de enero de 2009. De esta forma, las revisiones de precios del contrato serán por años naturales.

Por todo ello, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.- Proceder, tal y como se señala en la parte expositiva del presente acuerdo, a la prórroga del contrato del servicio actual de limpieza de edificios hasta el 31 de diciembre de 2008, para que, de este modo, la nueva adjudicación entre en vigor el 1 de enero de 2009.

SEGUNDO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo a SGL, empresa adjudicataria del servicio, y al departamento de Intervención.

6.- Gizarteratze programa.- Errefortzuko teknikariaren kontratazioa.

Gaia erabaki gabe geratu da eta Gizarte Zerbitzuetako arduradunari datorren astean batzorde honetara etortzeko deia egiten zaio, gai honetaz hitz egiteko.

7.- Ereite Elkarteak aurtengo egitasmoak eta diru laguntza.

Ereite Elkarteak aurtengo dituen egitasmoak azaldu ditu Euskara zerbitzuburuak.

- Euskarazko klaseak larunbatetan helduenzat, umeen zaintza barne.
- Galtzaundiko ludotekara haurrak bidaltzea.

- BOGAren bidez udako euskara ikastaroa gaztetxoentzat.
- Euskararen Eguna ospatzea: antzerkia, ipuin kontalaria, hitzaldia, sagardotegia...

Aipatutakoa kontuan izanda eta Euskara eta Hezkuntza batzordeak jaulki duen diktamenarekin bat etorriz, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- EREITE Elkarteari diru laguntza hauek ematea aipatu asmoak aurrera eraman ditzan eta ondoren aipatzen den eran banatuta:

- Euskarazko eskolak etorkin helduei (ekaina bitartekoa pagatzeko): **4.000 €**.
- BOGAren bidezko ikastaroa gazteentzat: **1.800 €**.
- Euskararen Eguna: **3.674 €**.
- Galtzaundiren ludoteka: **1.000 €**. (Galtzaundiren Hitzarmenean jasota geratuko da).

BIGARRENA.- Ludotekari buruzko laguntza Udalak zuzenean hitzartuko du Galtzaundirekin eta horrela ordaindu ere.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Euskara eta Hezkuntza departamentuari, Kontuhartzaitzari eta EREITE Elkarteari.

8.- Kultur tailerretako ordaindu gabeko kuotak.

Kultur Tailerretan bigarren kuota ordaindu gabekoen zerrendako bik erreklamazioa aurkeztu dute, eta beren egoera era honetan labur daiteke:

- A.J.A.I.**. Pintura eta Zeramika klaseetako bigarren kuota ordaindu gabe dauka. Erreklamazioan azaldutako arrazoiak: lanean hasi zela.
Irakasleek diotena: Pintura klaseetara ez da inoiz agertu.
- O.Z.O.de G.**. Zeramika klaseetako bigarren kuota ordaindu gabe dauka. Erreklamazioan azaldutako arrazoiak: lanean hasi zela.
Irakasleak dioena: ez zuen bajarik adierazi.

Kasu bakoitza aztertu ondoren, nahiz eta Udalaren aldetik administratiboki bete beharreko tramite guztiak bete direla onartu, klaseetara ez joan izana arrazoi nagusi gisa hartu dute batzordekideek.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, eta Kultura batzordeak jaulki duen diktamenarekin bat etorriz, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **A.J.A.I**.ri zeramikako bigarren kuota ordaintzeko eskatzea eta pinturakoagatik zor duen kopuruagatik (41,25 €) kontraituta dagoen diru kopurutik baja ematea.

BIGARRENA.- **O.Z.O.de G**.ri zeramikako bigarren kuotagatik (75€) kontraituta dagoen diru kopurutik baja ematea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Kultura departamentuari eta interesatuei.

9.- 13.zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzaitzak 13. faktura-zerrenda, 184.132,33 €-koa, aurkeztu du.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Aipatutako 13. faktura-zerrenda onartzea.

BIGARREN.- Onarpenaren berri Kontuhartzaitzari ematea.

10.- Tolosaldeko mankomunitatea.

La Mancomunidad ha nombrado para el desempeño de las funciones de Secretaría al Titular del Ayuntamiento de Tolosa, sin que estatutariamente le corresponda ejercer las funciones correspondientes a dicho puesto de trabajo.

En cumplimiento estricto de lo establecido en los Estatutos de la Mancomunidad, la secretaria de la entidad lo debería desempeñar el habilitado de otro Ayuntamiento. Ahora bien, el Ayuntamiento de Tolosa está interesado en que el puesto lo desempeñe, en el presente ejercicio, el Secretario del Ayuntamiento de Tolosa, por lo que es necesario fijar las compensaciones que a tal desempeño le pudieran corresponder, al igual que a sus colaboradores. A este respecto, hay que tener en cuenta que a la Mancomunidad se le han transferido nuevas funciones y competencias de los Ayuntamiento mancomunados, lo que conlleva un incremento de la tarea administrativa. Además, en este ejercicio, la Mancomunidad está inmersa en el proceso de formalizar su participación y colaboración en el Consorcio -organismo de ámbito provincial que

gestionará en el futuro la eliminación de residuos-, con lo que ello significa, entre partidarios y contrarios del proyecto, incluso y de forma especial entre los miembros de la propia Mancomunidad.

Por todo ello, a propuesta de alcaldía, la Junta de Gobierno, por unanimidad

ACUERDA

PRIMERO.- Encomendar al Secretario Municipal el desempeño del puesto de Secretaría de la Mancomunidad durante 2008, sin perjuicio de que por acuerdo de las partes implicadas (Mancomunidad, Ayuntamiento y al Secretario) se pueda prorrogar tácita o expresamente dicha encomienda para posteriores ejercicios presupuestarios.

SEGUNDO.- Gratificar por las labores encomendadas al Secretario municipal y a sus colaboradores de la siguiente forma:

Secretario Municipal: 10.500 euros anuales.

Colaboradores: Técnico de Administración General, de Recursos Humanos y de Intervención. El importe correspondiente a dos niveles (21 y 22) a cada uno, del anexo del Udalhitz.

TERCERO.- Establecer que dichos importes se incluirán en el complemento específico de los respectivos puestos, ajustándose sus importes a los incrementos habidos hasta el 1 de enero de 2008 y a las que se aprueben con posterioridad en las retribuciones del personal del Ayuntamiento.

CUARTO.- Aplicar de inmediato lo acordado con efectos de 1 de enero del presente ejercicio de 2008, abonándose las retribuciones correspondientes en la forma que se considera más adecuada por el servicio de Recursos Humanos, sin perjuicio de que la propuesta se lleve a Pleno para su ratificación.

Gai zerrendatik aparte eta daukaten premia kontuan izanik ondoren aipatzen diren gaiak tratatzen dira:

Sanjoanetako eta 2008ko kirol ekintzetarako diru laguntzak.-

Kirol teknikariak sanjoanetako eta urteko kirol jarduera berezien ekintzen txostenak azaldu ditu.

Gogorarazi du laguntza hauek 2008ko martxoaren 10ean Gobernu Batzordeak onartutako kirol laguntzak emateko oinarrien irizpideetan oinarrituta daudela.

Gauzak horrela, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ondoren aipatzen diren elkarteei diru laguntza hauek ematea:

| EKINTZA | ANTOLATZAILEA | LAGUNTZA |
|---------------------------|----------------------------|-----------------|
| Batel estropadak | Tolosa Arraun Taldea | 6.275 € |
| 3x3 saskibaloia | Tolosa C.F. (saskibaloia) | 3.340 € |
| Txirrindulariak | Oriako | 3.210 € |
| Futbol 8 torneoa | Tolosa C.F. | 2.000 € |
| Segalariak | Almintza Ekartea (Zaldibi) | 1.430 € |
| Futbol areto torneoa | S. D. Arsenal | 1.350 € |
| Igeriketa San Juan | Tolosaldea igeri taldea | 1.325 € |
| Xake nazioarteko txapel. | Xake Taldea | 1.070 € |
| V Hitza txapelketa | S.D. Aurrera | 840 € |
| Zesta Punta torneoa | C.D. Beotibar | 790 € |
| Dardoen Euskadiko txapel. | Iurre Ekartea | 1.910 € |
| Eskubaloia torneoa | Tolosa C.F. (eskubaloia) | 1.430 € |
| GUZTIRA | | 24.970 € |

2008ko jarduera bereziak:

| EKINTZA | ANTOLATZAILEA | LAGUNTZA |
|-----------------------------|----------------------------|-----------------|
| Elkartasun Krosa | Samaniego | 1.360 € |
| Batel topaketak | Orixe-Laskorain-Hirukide | 615 € |
| Ero etxe krosa | Ero etxe elkartea | 1.400 € |
| Shanti trofeoa | Shanti kirolak | 1.615 € |
| Roberto Jauregi urazpiko | Tolosaldea igeri taldea | 970 € |
| Eskubaloi partidua (Asobal) | Tolosa C.F. (eskubaloia) | 1.325 € |
| Bedaio Mendi martxa | Artubi elkartea | 2.000 € |
| 14 Orduko ibilaldia | Aralarko adiskideak | 6.000 € |
| Duatloia | Tolosaldea Triatloi taldea | 705 € |
| GUZTIRA | | 15.990 € |

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Kirol departamentuari eta interesatuei.

2008ko ekarpena Tolosaldeko Mankomunitateari.-

Tolosaldeko Mankomunitateak Tolosako Udalari eskaera egin dio 2008ko aurrekontuan jarri beharreko diru kopurua jar dezan.

Honetaz Kontuhartzaitzako teknikariak egin duen txostenaren arabera, eta Obra Departamentuak jaulkitako proposamenarekin bat etorri, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosaldeko Mankomunitateari 297.990,35 € ordaintzea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Obra departamentuari eta Tolosaldeko Mankomunitateari.

2008ko Tolomendiko ekarpena.-

Tolomendik 2008. urteko aurrekontuaren banaketaz bidali duen txostenean adierazi du Tolosako Udalari 36.300,77€ ordaintzea dagokiola. Hori horrela, eta Obra Departamentuak jaulkitako proposamenarekin bat etorritz, Gobernu batzarrak, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolomendiri 36.300,77 €ko kopurua ordaintzea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Obra departamentuari eta Tolomendiri.

Solicitud de UTE Tolosa Garbia para la revisión de precios del contrato del periodo 2005-2007 los incrementos salariales del nuevo convenio provincial del sector.

UTE Tolosa Garbia, concesionaria del servicio de recogida de residuos sólidos urbanos, limpieza pública viaria y transporte al vertedero de Sasieta, formula solicitud a fin de que el Ayuntamiento de Tolosa aplique la revisión de precios del contrato en el período comprendido 2005-2007, según los incrementos salariales del nuevo convenio provincial del sector.

Visto el informe emitido por parte del técnico de Intervención, esta Junta de Gobierno de conformidad con el contenido del mismo, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.- Aceptar la revisión de precios de costes de personal en el período comprendido entre enero de 2005 y diciembre de 2007, solicitada por la UTE Tolosa Garbia, y a tal efecto aprobar la factura nº 08A/005 por un importe total (IVA incluido) de 76.787,92 €.

SEGUNDO.- Requerir a la empresa UTE Tolosa Garbia que presente copias de los recibos de los salarios abonados a los trabajadores afectos a la contrata y

correspondientes a los años 2005, 2006 y 2007, así como copia de los documentos TC-2 correspondientes a dicho período.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jotzen da, goizeko 10:00etan.

Beh. Beh. ALKATEA

IDAZKARIA